



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A
Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2024ko Ekaina

MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA

- Zeftriaxona: Kounis-en sindromea
- Klormadinona/etinilestradiola: tronboenbolismo benosoa izateko arriskua
- Fentanilo transmukosoa: opioideen kontsumoaren ondoriozko nahasmendua (abusua eta adikzioa)
- Semaglutida: interakzioa kumarinaren deribatuekin eta heste-buxadura
- Topiramatoa: arrisku-prebentziorako material berriak
- Ketiapina: sindrome serotoninergikoa
- Tramadola/parazetamola: abusua eta adikzioa. Interakzioak
- Bribudina: hilgarria izan daitekeen interakzioa fluoropirimidinekin

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

FARMAZIAKO ADIERAZLEAK 2024KO KONTRATU-PROGRAMAN

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

BERRIKUNTZAK PRESIDEN

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

BERRITASUNAK FORMULA MAGISTRALETAN

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- Aztertzekeo medikamentu berria: azido benpedoikoa/azido benpedoikoa ezetimibarekin
- SEFAPEko infografia berria: Zer jakin behar duzu adineko pertsonen gernu-infekzioei buruz?
- Planeta-osasunari buruzko gomendioen gida

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA BERREZARPENAK

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

Zeftriaxona: Kounis-en sindromea

Antibakteriano betalaktamiko guztiekin gertatzen den bezala, hipersentikortasun-erreakzio larrien eta noizbehinka hilgarrien berri eman da. Zeftriaxonarekiko hipersentikortasun-erreakzioak Kounis-en sindrome bihur daitezke, miokardio-infartua eragin dezakeen erreakzio alergiko larria dena.

Klormadinona/etinilestradiola: tronboenbolismo benosoa izateko arriskua

Edozein antisorgailu hormonal konbinatu (AHK) erabiltzeak tronboenbolismo benosoa (TEB) izateko arriskua areagotzen du, ez erabiltzearekin alderatuta. Klormadinona/etinilestradiola duten medikamentuek (Belara®, klormadinona/etinilestradiola MGB) dakarten arriskua 1,5 aldiz handiagoa izan dezakete, lebonorgestrelarekin alderatuta. Klormadinona duen AHK bat erabiltzen dutenen emakumeen artean, arrisku horren maiztasuna 6-9/10.000 dela uste da. Lebonorgestrel duten AHK bat erabiltzen dutenen emakumeetan, ordea, arriskua 6/10.000 da.

Fentanilo transmukosoa: opioideen kontsumoaren ondoriozko nahasmendua (abusua eta adikzioa)

Fentanilo transmukosoa behin eta berriz erabiltzeak opioideen kontsumoaren ondoriozko nahasmendua (OKN) eragin dezake. Zenbat eta dosi altuagoak eta iraupen luzeagoa izan, orduan eta arrisku handiagoa dago.

Fentanilo-tratamendua hasi aurretik eta tratamendua egiten den bitartean, horren iraupena, helburuak eta hura eteteko plana adostu behar dira pazientearekin. Pazienteari OKNren arriskuen eta zeinuen berri eman behar zaio, bai eta gomendatu ere horiek agertuz gero medikuarekin harremanetan jartzeko.

Leukoentzefalopatia toxikoa ere ikusi da fentanilo-gaundosien kasuetan.

Semaglutida: interakzioa kumarinaren deribatuekin eta heste-buxadura

Azenokumarola eta semaglutida batera erabiltzean, INR murriztuaren kasuen berri eman da. Warfarinarekin edo kumarinatik eratorritako beste medikamentu batzuekin tratatutako pazienteetan, semaglutida-tratamendua hastean INRa maiz kontrolatzea gomendatzen da.

Topiramatoa: arrisku-prebentziorako material berriak

Arriskuen prebentzioari buruzko materialak medikamentu batzuen arrisku garrantzitsuak minimizatzen bideratutako jardueren parte dira. Duela gutxi haurdunaldian topiramatoa erabiltzearen arriskua deskribatzen duten material hauek eguneratu dira:

- Osasun-arloko profesionalentzako materiala ([arriskuaren berri izatearen formularioa](#) eta [haurdunaldian topiramatoak dakarren arriskuari buruzko informazioa](#)).
- Pazienteentzako materiala ([arriskuaren berri izatearen formularioa](#) eta [haurdunaldian topiramatoak dakarren arriskuari buruzko informazioa](#)).

Informazio gehiago nahi izanez gero, AEMPSren hileko segurtasun-buletina kontsulta daiteke [esteka](#) honetan, 2024ko maiatzaren 6an argitaratu zena.

Ketiapina: sindrome serotoninergikoa

Ketiapina beste medikamentu serotoninergiko batzuekin batera hartzen bada, hilgarria izan daitekeen sindrome serotoninergikoa eragin dezake. Medikamentu horien artean MAOren inhibitzaileak, serotoninina birkaptatzearen inhibitzaile selektiboak, serotoninina eta norepinefrina birkaptatzearen inhibitzaileak edo antidepresibo triziklikoak daude. Tratamendua beste serotoninergikoekin batera egitea klinikoki justifikatuta badago, pazientearen arretaz behatzea gomendatzen da, bereziki tratamenduaren hasieran eta dosiak handitu ondoren. Sindrome serotoninergikoaren sintomen barruan hurrengoak aurki ditzakegu: aldaketak egoera mentalean, ezegonkortasun autonomikoa, anomalia neuromuskularrak eta/edo sintoma gastrointestinalak. Sindrome hori dagoela susmatzen bada, eta sintomen larritasunaren arabera, dosia murrizteko edo tratamendua eteteko aukera aztertu behar da.

Tramadola/parazetamola: abusua eta adikzioa. Interakzioak

Tramadol/parazetamol-tratamendua hasi aurretik eta tratamendua egiten den bitartean, horren iraupena, helburuak eta hura eteteko plana adostu behar dira pazientearekin. Tratamenduan zehar, medikua eta pazientearen maiz jarri behar dira harremanetan elkarrekin, horrela tratamendua jarraitzeko beharra zein hura etetzea ebaluatzeko aukera egongo baita; bai eta dosiak doitzeko aukera ere, behar izanez gero. Dosia murriztuz gero edo tratamendua kenduz gero, pixkanaka egin behar da, abstinentsia-sintomak prebenitzeko.

Tolerantzia, mendekotasun fisiko eta psikologikoa, eta opiazeoen kontsumoaren ondoriozko nahasmendua (OKN) garatu daitezke opiazeoak (tramadola, adibidez) behin eta berriz eman ondoren. Zenbat eta dosi altuagoak eta iraupen luzeagoa izan, orduan eta arrisku handiagoa dago OKN garatzeko. Tramadolaren abusuak edo hura nahita gaizki erabiltzeak gaindosia eragin dezake, hilgarria izan daitekeena.

Pazienteak zaindu egin beharko dira, farmakoak bilatzeko jokabide-zeinuak detektatzeko (hala nola berrezartzeko eskaera goiztiarregiak). Horren barruan opiazeoen eta batera emandako psikofarmakoen (benzodiazepinak, esaterako) berrikuspena sartzen da.

Tramadola behin eta berriz erabiltzeak droga-adikzioa eragin dezake, baita dosi terapeutikoetan ere. Arrisku hori aldatu egin daiteke pazientearen arrisku-faktore indibidualen, dosiaren eta opioide-tratamenduaren iraupenaren arabera.

Gainera, kontuan hartu behar da tramadola/parazetamola nerbio-sistema zentralako beste depresore batzuekin batera erabiltzeak, edo gabapentinoidesarekin batera erabiltzeak (gabapentina eta pregabalina), hurrengoak eragin ditzakeela: arnasketa-depresioa, hipotentsioa, sedazio sakona, koma edo heriotza.

Bribudina: hilgarria izan daitekeen interakzioa fluoropirimidinekin

Brivudina timidinako nukleosido-analogoen antibiral bat da, Nervinex® eta Brivudina Aristo® medikamentuetan agertzen dena, eta zoster akutuaren herpesaren tratamendu goiztiarrean agintzen da, betiere pertsona heldu immunogaia bada. Brivudinak, bere metabolito nagusiaren bidez (bromobinil uraziloa), dihidropirimidina deshidrogenasa inhibitzen du. Entzima horrek pirimidina motako medikamentuak metabolizatzen ditu, hala nola 5-fluorouraziloa (Actikerall®, Tolak®, Verrucutan®, Fluorouracilo MGB), kapezitabina (Xeloda®, Capecitabina MGB), edo tegafura (Utefos®). Inhibizio entzimatiakoaren ondorioz, fluoropirimidina-mailak handitzen dira eta, ondorioz, pazienteak hiltzea eragin dezaketen erreakzio larriak ager daitezke.

Gogoan izan: fluoropirimidina-tratamenduan dauden edo egon berri diren pazienteetan zoster herpesa ez da tratatu behar brivudinarekin.

Informazio gehiago nahi izanez gero, AEMPSren hileko segurtasun-buletina kontsulta daiteke [esteka](#) honetan, 2024ko maiatzaren 20an argitaratu zena.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2

FARMAZIAKO ADIERAZLEAK 2024KO KONTRATU-PROGRAMAN

2024ko Kontratu-programan 2023ko adierazle gehienak mantentzen dira (ez dira sartzen DOE-printzipio aktiboen bidez egindako preskripzioak, opioideak, etab.). Neurtze-aldia urtekoa izango da, 2024ko urtarriletik abendura bitartean. Tarte zorrotzagoak ezarri dira adierazle batzuetarako (antibiotiko totalak, fluorkinolonak, eta Gida Farmakoterapeutikoarekiko atxikimendua), eta aurreko balioaren murrizketaren arabera puntuatzen direnetan, murrizpena gutxienez % 1koa izatea gehitu da.

Preskripzio farmazeutikoaren adierazleak 2 motatan sailkatzen dira:

Medikamentuen erabileraren segurtasunarekin lotutako adierazleak:

- Polimedikatuen prebalentzia (70 urtetik gorako pazienteak eta 10 farmako edo gehiago dituztenak)
- Protoi-bonbaren inhibitzaileen (PBI) preskripzioa
- Bentzodiazepinen preskripzioa
- Gida Farmakoterapeutikoari atxikitzea
- AIEE+diuretika+AEBI edo AHA II batera agintzea ("triple whammy" deitutako efektua izateko arriskua)
- AIEE-en erabilera segurua (arrisku kardiobaskularra eta arriskua giltzurruneko gutxiegitasun kronikoa duten pazienteetan)
- Antibiotikoen preskripzioa (PROA antibiotikoen erabilera optimizatzeko programaren adierazleen arabera)
- Karga antikolinergiko handiko medikamentuak agintzea 70 urtetik gorako pazienteen kasuan

Medikamentuen erabileraren eraginkortasunarekin lotutako adierazleak:

- Kolinesterasaren eta memantinaren inhibitzaileen preskripzioa
- AIEE 2 edo gehiago batera preskribatzea
- Osteoporosirako tratamendu farmakologikoaren preskripzioa bertan behera uztea 40-65 urteko emakumeetan

Hurrengo [estekan](#) ikus daiteke adierazleen taula osoa.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

BERRIKUNTZAK PRESBIDEN

Duela gutxi, aldaketa batzuk egin dira PRESBIDEn, preskripzioen iraupena errazago aldatzeko:

- **Preskripzio motaren aldaketa:** PRESBIDEk orain aukera ematen du jada sortutako preskripzio baten preskripzio mota aldatzeko, haren jatorria eta sorrera-data mantenduz. Aldaketa hauek egin daitezke:
 - Preskripzio akututik kronikora edo eskaeraren arabera aldatzea
 - Preskripzio kronikotik eskaeraren arabera aldatzea
 - Eskaeraren arabera preskripzio kronikora aldatzea
- **Erabiltzean galtzeagatik doikuntza.** Medikamentu batzuetan, medikamentuaren zati bat galtzen da hura erabiltzean (besteak beste: insulinetan, lumaren orratza purgatzean; jarabeetan, medikamentu-emate bakoitzean...). Arazo hori konpontze aldera, gaur egun PRESBIDEk % 10eko galera aplikatzen du botika mota horietan. Horrela, e-Rezeta sistemak edukiaren arabera dagokion baino iraupen laburragoa kalkulatzeko egunetan, kreditu gehigarriak egin behar izatea saihesteko.
- **Irekitzean iraungitzeagatik doikuntza.** Medikamentu batzuek egonkortasun mugatua dute behin ontzia ireki eta gero (fitxa teknikoan eta erabilera-orrian ezarrita dagoena). Hau gertatzen da denboraz kanpoko medikamentu-etetze ugari daudenean, insulinekin (lumetan), soluzioan dauden medikamentuekin (flaskoa), pomadekin/kremekin, etab. Pazienteek ondo kontserbatutako medikamentuak erabiltzeko behar dituzten ontziak izan ditzaten, PRESBIDEk kontuan hartzen ditu medikamentua lehen aldiz ireki eta gero pasa behar diren egunak hura "iraungiteko", eta ontzi kopuru egokia kalkulatzeko, preskripzioaren pautaren arabera.

PRESBIDEn berritasun horien dokumentua kontsulta daiteke hurrengo [estekan](#).

PRESBIDE preskripzio-tresna korporatiboaren erabilerari buruzko informazio gehiago dago hurrengo [estekan](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4

BERRITASUNAK FORMULA MAGISTRALETAN

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak honako berritasun hauen berri eman du formula magistral batzuetan.

E-Rezeta sisteman sartu diren formula magistral berriak:

- Minoxidiloa 0,5 mg 100 kapsula (finantzatu gabea)
- Minoxidiloa 1 mg 100 kapsula (finantzatu gabea)
- Kromoglikato sodikoa 40 mg/g O/A emultsioa 100 g ontzi 1 (bisatuarekin finantzatuta)

Formula magistralen aldaketak e-Rezeta sisteman:

Estradiol baleratozko 1 mg eta 2 mg 100 kapsulako formulak, CN 140545 eta 140546 dituztenak, hurrenez hurren, "errezeta elektronikoko bidez bakarrik finantzatuta" agertzen dira.

Salbuespenezko egoera:

Jorveza® konprimatuen hornidura irregularrak irauten duen bitartean, botikan sendagaia lortzen ez duten baimendutako bisatua duten pertsonak, harremanetan jarri beharko dute dagokion Lurralde Ordezkaritzako Farmazia Ikuskaritzarekin. Kasu bakoitza banan-banan baloratuko da, budesonida biskosoaren formula magistrala albuespenez baimentzeko (0,2 mg/ml 250 ml).

Informazio gehiago nahi izanez gero, Osakidetzako preskripzio elektronikoko sisteman eskuragarri dauden formula magistralen zerrenda kontsulta daiteke [esteka](#) honetan.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5

HILABETEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

Hauek dira 2024ko berrikuntzak:

2024ko ekaina		
	Kandesartana/ anlodipinoa/ hidroklorotiazida	Camlad® 16/10/12,5 mg eta 16/5/12,5 mg kaps. Lotuta dago hipertentsioa tratatzeko funtsezko tratamenduan baimendutako eta finantzatutako dosi finkoarekin, paziente helduen ordezkapen-terapia gisa, betiere pazientearen presio arteriala ondo kontrolatuta badago kandesartana, anlodipinoa eta hidroklorotiazida konbinatuz (medikamentu horien dosi berdinak era bereizian emanez). Fitxa teknikorako esteka.
	Tramadola/ zelekoxiba	Velyntra® 44/56 mg konp estaliak. Lotuta dago helduentzako baimendutako eta finantzatutako dosi finkoarekin, min somatiko akutu moderatu-bizirako tratamendu sintomatikorako, betiere min horrek tramadola eta zelekoxiba eskaten badu. Min somatiko moderatu-biziaren barruan sartzen dira, besteak beste, ebakuntza-ondoko mina (adibidez, kirurgia ortopedikoa eta traumatologikoa, edo hortzetako prozedura kirurgikoen ondoren) edo min muskuloeskeletikoa (muskuluetako, lotailuetako, tendoietako eta artikulazioetako lesioak). Fitxa teknikorako esteka.

 Merkaturatutako printzipio aktibo berria (edo lehendik dagoen bat administratzeko bide berria)

2020ko urtarritetik aurrerako berritasunak jasotzen dituen dokumenturako [esteka](#).

Vareniclina EFG. Honako aurkezpen hauek PRESBIDEn eskuragarri daudela jakinarazten da:

- Vareniclina 0,5 mg + 1mg 53 (11x0,5 mg + 42x1 mg) konp
- Vareniclina Normon 0,5 mg 56 konp
- Vareniclina EFG 1 mg 56 konp

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

Aztertzeo medikamentu berria: azido benpedoikoa/azido benpedoikoa ezetimibarekin

Dagoeneko [webgunean](#) eskuragarri dago Euskadiko Medikamentu Berrien Ebaluazio Batzordeak idatzitako fitxa: "Aztertuko den medikamentu berria", azido benpedoikoari / ezetimiba duen azido benpedoikoari buruzkoa. Izan ere, zalantza asko daude arrisku kardiobaskularra gutxitzeko dakarten onurari buruz.

Informazio gehiago lortzeko, dokumentu hauek kontsulta ditzakezu:

- Ebaluazio-fitxa: [esteka](#)
- Publizitatea kritikatzeko liburuxka: [esteka](#)
- Estatinekiko intolerantzia: [esteka](#)

SEFAPeko infografia berria: Zer jakin behar duzu adineko pertsonen gernu-infekzioei buruz?

Sociedad Española de Farmacéuticos de Atención Primaria (SEFAP) erakundeak infografia berri bat argitaratu du pazienteei eta herritarrei zuzenduta, adineko pertsonen gernu-infekzioei buruz zer jakin behar duten azaltzeko. Bertan adierazten da nola prebenitu infekzio horiek, zer sintoma diren ohikoenak eta noiz jo behar den larrialdiak zerbitzura.

[Esteka](#) honetan aurki daiteke dokumentua.



Planeta-osasunari buruzko gomendioen gida

Grupo de Salud Planetaria taldeak, Sociedad Española de Medicina de Familia y Comunitaria (semFYC) erakundearen parte dena, “*Qué hacer y no hacer en Salud Planetaria*” izeneko gidaliburua zabaldu du. Gidaliburu horretan Lehen Mailako Arretako profesionalak osasun planetarioaren ikuspuntua eguneroko kontsultetan ezartzeko modua jorratzen da; horrela pazienteei ingurumena babestuko eta larrialdi klimatikoari aurre egiten lagunduko duten preskripzioak emateko.

[Esteka](#) honetan aurki daiteke dokumentua.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIARIk garrantzitsuenak:


- Acitretina Ifc® 25 mg kapsula gogorak (Azitretina)
- Atenza® 18 mg ask. luzeko 30 konp (Metilfenidatoa)
- Certican® 0,25 eta 0,1 mg 60 konp dispertsagarri (Eberolimusa)
- Concerta® 18 mg ask. luzeko 30 konp (Metilfenidatoa)
- Diprosalic® pomada 30 g (Betametasona /azido salizilikoa)
- Engerix B® 20 mcg/ml injektagarria 1 ml-ko xiringa aurrekargatua (B hepatitisaren birusa, gainazaleko antigenoa)
- Glucolon® 5 mg 100 konp (Glibenklamida)
- Humulina regular® 100 UI/ml soluzio injektagarria 10 ml-ko biala (Giza intsulina)
- Iopimax® 5 mg/ml kolirioa 5 ml-ko flasko-soluzioa (Apraklonidina)
- Metilfenidato 18 mg Sandoz®, Tecnigen®, Viatris® ask. luzeko 30 konp (Metilfenidatoa)
- Neotigason® 25 mg 30 kapsula (Azitretina)
- Octreotida Gp Pharm (MGB) 0,05 eta 0,1 mg/ml soluzio injektagarria 1 ml-ko 5 anpoila (Okteotrida)
- Oponaf® 10 g 20 eta 50 zorro (Laktitola)
- Pecfent® 400 mcg/lainoztatze sudurretik lainoztatze soluzioa 8 dosiko 1 eta 4 ontzi (Fentanilo zitratoa)

- Praxilene® 100 mg 50 kapsula (Naftidrofuriloa)
- Pylera® 140/125/125 mg 120 kapsula (Bismuto subzitratoa /metronidazola /tetriziklina hidrokloruroa)
- Rotateq® ahotik hartzeko soluzioa 2 ml-ko 1 tubo (Errotavirus indargabetua)
- Rubicron MGB 18 mg ask. luzeko 30 konp (Metilfenidatoa)
- Salbutamol Sandoz® 100 mcg/dosi inhalatzeko suspentsioa 200 dosiko ontzia (Salbutamola)
- Sandostatin® 50 eta 100 mikrogramo/ml soluzio injektagarria, eta perfusiorako 1 ml-ko 5 anpoila (Oktreotida)
- Semglee® 100 U/ml soluzio injektagarria 3 ml-ko 5 luma aurrekargatu (Intulina glargina)
- Sereprostat® 80 mg 60 konp (Serenoa repens)
- Treclinac® 10 mg/g + 0,25 mg/g gela 30 g-ko tuboa (Klindamizina/tetrinoina)

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Aterina® 15 mg 60 kapsula (Sulodexida)
- Bactroban nasal 20 mg/g 3 g-ko tuboa (Mupirozina)
- Equasym® 20 eta 40 mg askatze luzeko 30 kapsula (% 30 - % 70) (Metilfenidatoa)
- Gelidina® 0,25 mg/g gela 60 g-ko tuboa (Fluozinolona azetonidoa)
- Havrix® 720 eta 1440 UI xiringa aurrekargatua (A hepatitisaren birusaren antigenoa)
- Intuniv® 1 eta 2 mg ask. luzeko 28 konp. (Guanfazina)
- Lantanon® 10 mg 60 konp. (Mianserina)
- Ryaltris® 25/600 mcg / sudur-lainoztatze pultsa 30 ml (Olopatadina/Mometasona)
- Suniderma® % 0,127 krema 30 eta 60 g (Hidrokortisona azeponatoa)
- Suniderma® % 0,127 pomada 30 g (Hidrokortisona azeponatoa)
- Triapin® 5 mg/5 mg ask. luzeko konp. (Felodipinoia/Ramiprila)
- Uraplex® 20 mg estalitako 60 konp. (Trospio kloruroa)
- Victoza® 6 mg/ml 3 ml-ko 2 luma aurrekargatu (Liraglutida)

PRESBIDEN «Hornikuntzarik eza» botoia eskuragarri dago, «Preskripzioen kontsulta» pantailaren beheko aldean, hornikuntzarik ezari buruzko informazio erabilgarriekin.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke.

- [Hornidura-gabezien taula](#): PRESBIDEN, zuzenean taula honetara daraman “Hornikuntzarik eza” botoia txertatua izan da.
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuak hornitzeko arazoak](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Amaia Alzaga, Arantza Hernández, Javier Martínez eta Inés San José



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinik egokitu da. FarmaHitzak buletinak Osakidetza intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez.